

Galdera

'Alteridad': nola eman euskaraz?

Data: 2016/09/21 (eguneratua: 20230220)

Erantzuna

Alteritate / Bestetasun

1/ Batzuetan, terminoen euskal ordain egokiak zein izan litezkeen erabakitzeke, komeni da ikustea nola jokatzen den beste hizkuntza batzuetan, ez bakarrik gaztelania:

Gaztelaniaz	<i>Alteridad</i> , baina baita <i>otredad</i> ere
Frantsesez	<i>Altérité</i>
Ingelesez	<i>Otherness</i> , baina baita <i>alterity</i> ere
Portugesez	<i>Alteridade</i> , baina baita <i>outridade</i> ere

Beraz, hizkuntza horietatik gehienetan, bi forma dauzka termino horrek:

a/ latinetik etorritako mailegua, hizkuntza bakoitzaren fonologiari egokitua (*alteridad*, *altérité*, *alterity*, *alteridade*...)

b/ hizkuntza bakoitzeko forma arruntaren gainean eraikitako forma eratorria:

otro → *otredad*

other → *otherness*

outro → *outridade*

Oharra: latinezko *alter* berbatik datoz *otro* (gazt.) / *outro* (port.) / *autre* (fr.)... formak; eta, hizkuntzen historian atzerago joanda, erraz frogatu daiteke ingelesezko *other* eta latinezko *alter* ere jatorri berekoak direla.

2/ Argi dugu euskaraz ere berdin jokatu genezakeela:

a/ latinezko mailegua onartzea, euskararen berezko fonologiari egokitua: 'alteritate'


b/ euskarazko berba arruntaren gainean eraikitzea, eratorpenaren bidez, neologismoa: 'bestetasun'

Hala, [Zehazki](#) hiztegiak bi forma horiek proposatzen ditu; [Euskaltermek](#), berriz, 'alteritate' baino ez, horixe proposatu baitzen 2010eko *Hiztegi Terminologikoan*...

3/ Bestalde, bi formak erabili dira azken urteotan euskarazko hainbat testutan; maiz erabili ere. Horren frogagarri, EHUk prestatzen duen *Egungo Testuen Corpusa* (ETC) kontsultatuta aurkitu ditugun adibideak. Bi esteka hauetan dituzu:

'alteritate': <http://www.ehu.eus/etc/?bila=alteritate>

'bestetasun': <http://www.ehu.eus/etc/?bila=bestetasun>

Behin esteka bakoitzean sartuta, «Formak» atala agertuko zaizu. Adibideak ikusteko,  itxurako gezitxoetan egin behar duzu klik, eta leiho batean agertuko dira.

4/ Baina, 'bestetasun' zein 'alteritate' terminoak onartzeko trabarik ez izanik ere, garrantzitsuagoa da irakaslearentzat (hitzaren edozein erabiltzailerentzat, egia esan) kontzeptua bera zertan den azaltzea; hau da, definitzea.

Erantzun hau biribila izateko, gure ustez, kontzeptuaren definizioa eskaini beharko genizuke, horri irizten baitiogu benetan lagungarria. Baina ez gara ausartzen, ez dakigu-eta zehazki zer testuingurutan erabiltzekoa den. Wikipediako artikulutxoek jasotzen dutena euskaratuko genuke, baina alferrikakoa izan liteke, Gizarteratze arloan bestelako ñabardurak hartu baititzake kontzeptuak. Beraz, nahi izanez gero, bidali iezaguzu testutxo bat zuk proposatuko zenukeen definizioarekin, eta esango dizugu zer deritzogun, egokia den ala ez.